



MUSIKA - HIRU HERNANIAR BILBOKO KONTSERBATORIOAN IRAKASLE

«Bilboko Kontserbatorioa sekulakoa da instalazio eta prestazio aldetik»

Nerea Goikoetxea, Amaia Egilegor eta Karen Ortiz de Guinea hernaniarrak musika irakasle lanetan aritu dira Bilboko Kontserbatorioan, bukatu berri den kurtsoan. Kasualitate hori aprobetxatu du Kronikak galdera batzuk egiteko.

INOIZ ez dira hiru hernaniar batera Bilboko Kontserbatorioan aritu klaseak ematen, baina aurtengo kurtso bukaeran halaxe koinziditu dute Nerea Goikoetxeak, Amaia Egilegorrek eta Karen Ortiz de Guineak. Egun askotan joan-etorriak elkarrekin egin dituzte, Usurbil eta Donostiako beste bi lagunekin batera, eta 3 orduko bidaiak askorako eman die, elkar ezagutu, eta batez ere elkarri laguntzeko.

Pianoa eta akordeoia erakusten, gustora

Egilegor eta Ortiz de Guinea akordeoia erakusten aritu dira, eta oraingoz bukatu dituzte Bilboko lanak. Goikoe-txeak berriz, pianoa erakusten du, eta bost urterako lana dauka. Hirurek diote lanerako leku ederra dela Bilboko Kontserbatorioa. «Edifizioa bera sekulakoa da, eta instalazio eta prestazio aldetik ere bai. Auditorioa, piano-koladuna, gelak insonorizatuak... horrez gain, lau pisu ditu, eta parkina irakasleentzat, eta kafetegia, sukaldea... gozada bat da hor klaseak ematea».

Bilboko Kontserbatorioan 1.000 ikasle inguru ari dira, eta 70 irakasle inguru.

Maila dezente ona

Kontserbatorioak beti izan du fama ona, bertako ikasleek oso maila altua dutelako. Goikoetxeak, Egilegorrek eta Ortiz de Guineak ez diote horrenbesteko pixua eman fama horri, baina maila ona dela diote. «Orokorrean maila



Nerea Goikoetxea, Amaia Egilegor eta Karen Ortiz de Guinea, Bilboko Kontserbatorioan.

ona da, batez ere adin batetik aurrera, filtroa pasa behar izaten dutelako ikasleek. Hala ere, eskola guztietan bezala, denetik dago, bai hemen eta bai beste musika eskoletan».

Klaseak banaka, eta azken helburua taldean jotzea

Bai pianoa eta bai akordeoia banaka erakusten dira. Irakasle bakoitzak ikasle bat dauka ordubetez, eta hari bakarrik ematen dizkio klaseak. «Hori lehen ere hala zen eta orain ere bai. Dena dela, gero badituzte taldeka-ko klaseak ere: ganbara, kon-

«Beti ari behar duzu zure burua formatzen: garai bakoitzeko musika ezagutu, pedagogia...»

«Kontserbatorioan orokorrean maila ona dago. Hala ere, eskola guztietan bezala, denetik dago, bai hemen eta bai beste musika eskoletan»

juntoa... berez, azkeneko helburua da, taldean ondo jotzea, beraz hori gero eta gehiago landu, hobe».

«Musika karrera ez da inoiz bukatzen»

Luzea da musika karrera. Hori ez da kontu berria, eta hiru musika irakasleok halaxe baieztatzen dute. «Karrera hau ez da inoiz bukatzen. Beti ari behar duzu zure burua formatzen: garai bakoitzeko musika, pedagogia, partituren analisisa, inprobisazioa... musiko bezala eta irakasle bezala».

Esaten den bezain gogorra al da?

Karrera gisara, musika ikasketak gogorrak izan direla diote hiru kideek. Ortiz de Guineak adibidez, korrika ere egin nahi izan zuen, baina ezin izan zuen apuntatu, orain ederki moldatzen den arren. Goikoe-txeak ere halaxe gogoratzen du ikasle garaia. «Bakardade pixka bat sentitzen da. Lagunekin ibili beharreko garaian, zu klaseetan bakarrik egoten zara, bost orduz ikasten egunero, gero entsaioak etxean...».

Dena dela, gustoko tokian aldaparik ez, eta gainera, gauza batzuk aldatzen ari dira, poliki bada ere. «Zer erakutsi esaten duen programa bat badago, baina nola erakutsi norberaren esku dago asko», dio Goikoetxeak. «Gu beste leku batzutan klaseak ematetik iritsi gara kontserbatoriora, eta hori nabaritu egiten da. Bertan urteak daramazkitenei kosta egiten zaie aldaketak onartzea», azaldu du Egilegorrek. Erronka politak ere badituzte aurrera begira. «Adibidez, klaseak euskeraz ematen ditugu guk, eta eskaera igotzen ari da. Hori positiboa da, eta horrez gain badira erronka gehiago ere: inprobisatzen erakustea adibidez, erronka bat da. Hori landu egin behar da».

Bilbora bidaiak gogoan

Epe motzean tokatu dira elkarrekin, baina hiru hernaniarrok gogoratuko dira Bilboko Kontserbatorioko egonaldiaz, eta elkarrekin hara eta hona egindako bidaiak. ■

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
902 402 900
www.funerariavascongada.com

Orkolaga, 57
943-55 79 01
HERNANI

tripontzi taberna

ARRAIN FREKIOAREN EGITEN DUGU LAN!

Kardaberz kalea, 11 • HERNANI
943 555 724

MARI FE

ARRANDEGIA

ORDUTZIA
GOIZEAN: 8:00 - 14:00
ARRATSALDEAN: 18:30 - 20:00

NAGUSIA 36 • 943 550 489

☎ TELEFONAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 092 ● DYA: 943 464622
 ● Autobusak: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
 ● Anbulatorioa: 943 006666 - 943 203020 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103
 ☩ FARMAZIAK ● Eguzte: Etxebeste Elkano 2 - 943 552087 ● Gauez: Aldabe Perkaiztegi 8 (Antziola) - 943 336022

EGURALDIA
GAUR Tenperaturak beste koska bat egingo du gora, eta eguzkia nagusi izango da egun guztian. Arratsaldean bota dezake zaparradaren bat. Min.17° / Max.27°
BIHAR Sargori puntua hartuko du bihar, beste gradu bat igoko baitira maximoak. Eguzkia nagusi, eta zaparrada eta ekaitz arriskua ere haundituko da. Min.17° / Max.28° (euskaime)

HERNANIKO UDALA

Espainiako bandera, Ikurriña eta Europakoa jarriko dituzte gaur udaletxean

«1936an bezala, aurten ere uztailaren 18an agerian geratuko da Espainiaren inperialismoaren zapalkuntza», adierazi du Sortu alderdiak.

HERNANIKO udaletxean hiru bandera jarriko dituzte gaur: Espainiako bandera, Ikurriña eta Europar Batasuneko. Espainiako Gobernuak Carlos Urquijok agindu zuen Espainiako bandera udaletxe guztietan jartzeko, eta Hernanin gaur jarriko dute.

«Mehatxuz eta bortxaz» «Zigor mehatxupear» jarriko da bandera hori Hernaniko udaletxean, ekainaren 18ko Plenoan onartu zen mozioak dioenez, eta geroago Hernaniko EH Bilduk prentsaurrean adierazi zenez. Kronikara bidalitako oharrean Hernaniko Sortu alderdiak adierazi du, uztailaren 18an beteko dela agindu hori, frankismoaren altxamenduen egun seinalatua delako, eta agerian geratu dedin, «Espainiako inperialismoaren zapalkuntza». Horrez gain, hauxe dio Sortu: «Espainiako PPko gobernuak, mehatxuz eta bortxakeriaz

Espainiako Gobernuak Carlos Urquijok agindu zuen Espainiako bandera udaletxe guztietan jartzeko.

Espainiako Ikurra ezarriko du Hernaniko udalean».

EAJ eta H1 kritikoa
 Hernaniko EAJ eta H1 alderdiak kritiko azaldu ziren ekainaren 18ko Plenoaren ostean. Adierazi zutenenez, «Espainiako bandera udaletxean jartzeko inposizioa dela eta, Bilduren hipokresia salatu nahi dugu, besteei desobediencia exijitzen diete justuak ez diren erabakien aurrean, baina beraiek obeditu egiten dute pragmatismoaren izenean».

Ikurriñaren aldeko ekitaldia, ekainaren 22an
 Espainiako bandera jartzeko aginduaren kontra, ikurriñaren aldeko omenaldia egin

zen Gudarien plazan, ekainaren 22an. Ekitaldi horretan, ikurriña berriz ere Gudarien plazan jarri zuten, garai batean egon zen gisara. 1977tik Hernanik izandako zazpi Alkatetik bost bertan izan ziren, eta Luis Intxauspek, egungo Alkateak hitz hauek egin zituen: «1977an Pleno berezia egin zen Udalean, Inazio Iruin Alkate zela. Gai bakarra landu zen: ikurriña ofizialki gure ikur gisa onartzea. Hala onartu zen aho batez, eta ordutik ikurriña udaletxeko balkoian izan da». Horrez gain, adierazi zuen, «lur arrotzetik, inposizioz, behartuta» jarriko dela Espainiako bandera Udaletxean.

Hiru bandera
 Kronikak jakin ahal izan duenez, hiru bandera jarriko dira gaur: Espainiako, ikurriña eta Europakoa. Ekitaldia noiz izango den ez dago ziur, baina arratsalderako jarriko dituzte hiru bandera horiek. ||

Jasota Bezala

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

Espainiaren ikurra, independentziaren auspoa

1936ko uztailaren 18a egun iluna eta odoltsua izan zen Euskal Herriko historian eta aurtengo uztailaren 18an ere Espainiaren inperialismoaren zapalkuntza agerian geratuko da.

Aurtengo uztailaren 18an Espainiako PPko gobernuak, mehatxuz eta bortxakeriaz Espainiako Ikurra ezarriko du Hernaniko udalean.

Zalantzarik gabe biziko duguna mingarria izango da abertzale ororentzat baina hainbat ideia zabalduta nahiko genituzke:

• PPko gobernuak Espainiako ikurrarekin duen obsesioa Espainia proiektuaren porrotaren islada besterik ez

da. Katalunia badoa, eta Euskal Herria bizitzen ari den ziklo politiko berriak independentzian izango du amaiera. Bilakaera honen jakitun direnez, Espainiako inperialistek eta inoiz desagertu ez diren frankismoaren oinordekoek desesperazioaren haginkadekin erantzuten dute.

• PPko gobernuak badaki Espainiar estatua hondoratzen ari dela: ustelkeria, bankariet eta aberatsen oligarkiak sortutako hondamen sozial eta ekonomikoa, Espainiako instituzioen eskandalu ezberdinak agerian uzten dute Frankismoaren ondoren sortutako estatuaren porrota. *Espainiako trantsizio demokratikoa* deitu izan zenaren pitzadurak baino, eredu horren

gainbeheraren arrakalak ezagutzen ari gara. Euskal abertzaleak egoera honetaz baliatu behar dugu independentziaren bidean sakontzeko.

• Azkenik hori da hain zuzen ere hernaniar abertzaleei luzatu diegun mezua: Espainiaren zapalketaren aurrean Euskal independentzia eraikitzea. Euskaraz bizi nahi dugu, euskal esparru sozial eta ekonomikoa berria, justua eta solidarioa eraikiko dugu, hezkuntza eredu propioa gauzatu behar dugu... eta azken batean gizon eta emakume askeen Euskal Herria libre bat gauzatu dugu. Bide horretan ez dugu etsiko. Eutsi borrokari!

Aitzol Arrieta Erasquin
 Sorturen izenean

PAUSOKA - HITZALDIA

Lluis Arnaiz Duro de Paradis medikuak larunbatean hitz egingo du Hernanin, gaixotasun arraroei buruz

Hernaniko Pausoka taldeak antolatuta, hitzaldia emango du larunbatean Kataluniako mediku batek. Lluis Arnaiz Duro de Paradis medikua aditua da neurobiogenetika arloan, eta gaitz arraroak dituzten haurrak tratatzen ditu. Hitzaldian azalpenak emango ditu egiten duenari buruz, interesatuak dauden guztientzat. Larunbat goizean izango da, 10:00etan, Florida kaleko 9 zenbakian, Pausoka elkartearen lokaletan. ||

MADALENA JAIK

Kalea moztuta trafikoarentzat, igandean

Madalena jaiak dira asteburu honetan Lizeaga auzoan. Hori dela eta, igandean itxi egingo dute kalea trafikoarentzat. Hain zuzen, Victor Hugo kaletik ezingo da sartu, eta Larramendi ere itxita egongo da 11 zenbakia bitarte. Igandean, goizeko 11:00etatik arratsaldeko 18:00etara itxiko dute kalea. ||

SAN JOAN KONPARTSA

Asanblada gaur, udaletxean

San Joan Konpartsak asanblada egingo du gaur, 19:00etan, udaletxeko Areto Nagusian. Festei buruz ariko dira. Batetik, San Joanei buruzko balorazioa egingo dute, eta 2014ko San Joanak aipatuko dira; bestetik, Euskal Jaiak hizpide izango dituzte. Arropa itzultzeko eskaera ere egin dute. ||

ARGAZKI ERAKUSKETA

Maria Mamerta Agirrerren argazkiak, Iturraran parketxean: 'Barru Argia'

Pagoetako Iturraran parketxean argazki erakusketa dotore bat dago jarria, heldu eta haurrentzat: *Barru Argia*. Maria Mamerta Agirre hernaniarrak jarri du erakusketa, eta ikusgai dago asteartetik ostiralera (10:00-14:00 eta 16:30-18:30) eta larunbatetik igandera (10:00-14:00). Prezioa: helduek euro 1 eta 5-12 urteko haurrek 0,5 euro. ||

Eskelak

† MARIANO SANZ GARCIA

JAUNA
 Atzo hil zen, 89 urte zituela
 - Goian Bego -

Emaztea: Dominica Gorriti; seme-alabak: Antxon eta Ana Antoñanzas, Iosu eta Maite Elosegui, Maite, Jone eta Koldo Urreta; bilobak: Beñat eta June, Uzuri eta Asier, Zuriñe eta Xabi, Ane eta Txomin; anai-arrebak: Maria Angeles eta Felipe Maiztegui (†); ezkon anai-arrebak, birlabak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **GAUR, OSTEGUNA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2013ko uztailaren 18an

Helbidea: Oarso 6-3A
 OHARRAK: Gorputza ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN egongo da eguerdiko

IRAGARKI MERKEAK

TXOLLOAI, 120.000€, Victor Hugo kalean. 2 gelatoko pisua, igogailua, orain dela 10 urte eraberritua. Deitu: 699 450 815

Ereñotzun pisua salgai. Dena eraberritua. 3 logela, sala, sukalde eta komuna. Kalefakzioa eta aparkamendu komunitarioarekin. Garajea aukeran. 180.000 € (negoziableak). Deitu: 600 644 885

Kataluniako neska bat pisu bila dabil konpartitzeko, ikasketak kurtsuan zehar. Deitu: 622 699 392

Sukaldari bila gabilta Hernaniko taberna batean, asteburuetan lan egiteko. Deitu: 688 647 582

Akordeioa salgai, Zero Sette markakoa. Deitu: 686 679 075

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, aurikuloterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)